


RESEÑAS
Liburu iruzkinak
Compte rendues



1. Antoine d'Abbadie, *Pensées, études et voyages de 1835. (carnet inédit)*. Édition de Patri Urkizu avec la collaboration d'Āurelia Arkotxa. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 159 or.

Patri Urkizu irakasleak Anton Abbadiak gazte garaian idatzitako bidai-liburutto bat aurkezten digu, orain arte Pariseko Bibliothèque de l'Institut-ean eta MS n^o 2081 bezala katalogaturik zegoena denon eskuan ezarrit. Hitzaurretxo bat ipini dio kokatuz lana zientzilar handiaren liburuen artean hala nola XIX. mendeko beste bidaiari jakintsuenen artean. Lan honetan, hala nola transkripzioarenean Aurelia Arkotxa irakasleak lagundu du. Edizioan A. Abbadiak Irlanda, Ingalaterra eta Eskozia aldean burutu ibilaldietan egindako irudi eta marrazkiak oro (katedralak, gazteluak, liburutegiak, itsas-ontziak...) mantentzen dira eta garaiko beste zenbait hornigarri gisa ageri dira. Bukaeran zenbait poema frantsesez hala nola euskal aireen gainean moldatu ingelesezkoak ematen dizkigu, A. Abbadiaren irudi ezezagun bat ageriz.



2. Antoine d'Abbadie, *Recueil des textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques et littéraires*. Édition de Patri Urkizu, avec la collaboration d'Idoia Estornes. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 456 or.


Patri Urkizu irakasleak Anton Abbadiak argitaratu liburu hitzaurre eta artikuluen bilduma eder bat eskaintzen digu. Lehenik aitzin-solas, kronologia eta bibliografia ematen digu, non berrehun lanetik gora aipatzen diren. Ondoren Idoia Estornesek Abbadiaren etnografia eta geodesia lanak bere garaian kokatzen, aurkezten eta kritikatzten ditu. Azkenik Urkizu berak

Abbadiaren hizkuntza eta literaturari buruzko idazkiei aitzin-solas xume baina argigarria ipintzen die. Orotara berrogeita hamar lanen bilduma dugu, zeinari erantsi behar zaizkion hogeitabi gutun argitaragabe, A. Abbadiak Pariseko Liburutegi Nazionalean utzitako eskuzkribuetarik hartuak. Dena garaiko bidaiariak marraztu irudiz eta fotografiez horniturik datorkigu. Bilduma ezinbestekoa, beraz, A. Abbadiaren obra sakonki ezagutzeko.



3. *Anton Abbadiaren Koplarien Guduak. 1851-1897*. Patri Urkizuren edizioa Piarres Xarriton eta Patxi Intxaurrendietaren laguntzaz. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 486 or.

Laurehun poema eta hirurogei ta hamazazpi aire ezberdin aurkezten dizkigu liburu hone-tan Patri Urkizu ikerleak. Kronika antzeko hurbiltze saioa eskeintzen digu sarreran Lore Jokoen prestaketetako barne mundua eta xehetasunak adieraziz. 1851an Urruñan hasi eta 1897a arteraino, hau da A. Abbadiaren heriotzeraino urtez-urte eta Zazpi Probintzietan zehar anto-latzen saiatu eta ahalegindu zen besten emaitza poetikoa. Mendearen bigarren parte hone-tan A. Abbadia izan zen mezenas eta pizkundearen eragile nagusia, berak sortu zituen eus-kal jai edo olinpiadaxoen bitartez, non beste joko anitzen artean pilota zen nagusi. Bertso anitz ezezagun eta argitaragabe ematen dizkigu edizio honek bertsozaleen gozamenerako, bai halaber koplari ezezagunez albiste berri frango, Piarres Xarriton eta Piarres Andiazabali esker. Patxi Intxaurrendietaren lan aireen aurkezpene ere benetan eredugarri da, bertan ikus dezakegularik Salaberri 1870ean bere bilduma plazaratu baino lehen, kanta zenbait ohiko zirela, eta ez zituela denak bildu. Garaiko iragarkiz eta fotografiez horniturik dator euskal literaturaren alorra benetan aberasten duen liburu mardul eta eder hau.




Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica / Gorka Aulestia et. al.- Fundación Sancho el Sabio. Vitoria-Gasteiz 1996, 466 p. (Besaide Bilduma; 7)

El séptimo número de la colección *Besaide* trata de la literatura clásica vasca escrita en vascuence bajo el título: “Los Escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica”. La Fundación Sancho el Sabio y el coordinador de este libro, el profesor Gorka Aulestia, han conseguido la participación de algunos de los mejores especialistas en los temas relacionados con la literatura vasca. Esta obra de 466 páginas está compuesta de 13 artículos y abarca dos partes importantes: la literatura oral (bertsolarismo, pastorales, refranero) y la escrita desde sus orígenes (1545) hasta finales del siglo XIX.

El libro contiene los siguientes artículos: “Breve historia del bertsolarismo”, por Gorka Aulestia; “Las pastorales”, por Iñaki Mozos; “Bernat Etxepare: el poeta de una lengua sin estado”, por Andrés Urrutia; “Joannes Leizarraga”, por Endrike Knörr; “Refraneros antiguos vascos anteriores a Oihenart”, por Joseba A. Lakarra; “Pedro de Axular”, por Patxi Altuna; “Arnault Oihenart”, por Jon Kortazar; “El Conde de Peñaflorida, ¿un soñador para un pueblo?”, por Jesús María Lasagabaster; “Larramendi o el despertar de la literatura vasca peninsular”, por Blanca Urgell; “El Padre Cardaveraz: hito importante de la literatura guipuzcoana”, por Rosa Miren Pagola; “Juan Antonio Moguel y su obra literaria”, por Xabier Altzibar; “Louis Lucien Bonaparte: visión lingüística del siglo XIX”, por José Antonio Arana; “Jean Baptiste Elizanburu: Piarres Adame”, por Ana Toledo.

Como colofón de la obra aparecen el catálogo de la exposición sobre literatura vasca y la bibliografía correspondiente a este libro que está llamado a ser un clásico en este terreno.



Jon Kortazar, *Luma eta lurra*. *Euskal Poesia 80ko hamarkadan*. BBK, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1997, 647 or.

Gaur baino urduriago nengoela, orain dela urte gutxi Jon Kortazarrek eskolak ematen zituen ikasgelara sartu nintzen. Ez nuen ezagutzen. Esan nahi dut paperetan nuela ikusita haren izena eta haren lanaren berri, eta jakin banekien literatur kritikaz arduratzen zela. Ni ikaslea, beraz, eta hura irakaslea. Liburua argitaratu berria nuen nik, eta hasieratik somatu nuen zirikaren bat entzun gabe ez nuela ikasturtea pasako. Horrelaxe izan zen, eta ikasle bati derrigorrezko eta beharrezko zaizkion alferkeriatik eta lo kuluxka txikietatik galdera zorrotzez atera ninduen behin baino gehiagotan. Lizardi eta Lauaxeta ezagunagoak atzera utzi genuen ikasturtea aurrera ahala, eta gaurko literaturaren, bide bainoago, tuneletan sartu ginen. Eskola argigarri batzuk ditut oraindik gozoan gorderik, eta irakurritako liburuak.

Literatur kritikazko liburuekin harreman bitxiak izan ditut beti. Ezer baino lehen esan behar dut literatur kritika genero moduan eta aldaera guztietan atsegin dudala, asko gustatzen zaidala. Batez ere hondartzan, edo etzanik behintzat, irakurtzeko; eta horrek ez du inolako mesprezurik adierazten buru gaiztoko batek pentsa lezakeenaren aurka. Nolanahi ere, askotan unibertsitatean edota inguru akademikoetan suertatu zait literatur kritika irakurtzearen edo, hobe, ikastearen beharra. Eta bai, ikasi, asko ikasten da horrela baina plazerra urruntzen da, irakurlea ezin da liburutik heltzen zaizkion iradokizunetan kulunkatu, ezin du liburua alde batera utzi eta soa itsasoan, zeruan edo beste nonbait galdu. Liburua amaitzean datu gutxiago izango ditu oroimenean agian, gauza gutxiago jakingo du, baina ziur naiz neuronon kimi-ka misterioitsuak egindako lan izkututik fruituren bat sortuko dela zalantzarik gabe, hau da, gauza gehiago ezagutuko du. *Luma eta lurra* liburu honekin zorioneko naiz, inguru akademikotik urrun, literatur kritikazko liburu berri bat dut gozatzeko. Hasi dut dagoeneko, eta dagoeneko beldur naiz, nik nahi baino arinago bukatuko zaidalako. Eta, asko bezala, izutu nintzen liburuaren tamaina ikustean.

Gure artean literatur kritikaz entzun ohi ditugun topikoak barregarriak dira, eta kritika eza-aren lelo nekatur guztiz aspergarria. 80ko hamarkadan, Jon Kortazarrek aztertzen duen hamarkadan bertan, beste eztabaidatxo bat plazaratu zen kritika objektikoa eta subjektiboa, hitz neutraenak erabiltzearen, bereizi eta bata zein bestea balioesteko. Objektiboarekin arrazoa, ikerketa zentzudunak eta akademizismoak nahasten ziren bitartean subjektiboari intuitzioa, barne ezaguera eta erlatibismoa gaineratzen zizkioten. Autopsiak gehiegi maitatzea leporatu diogu kritika akademikoari, poemak labanez moztu egiten dituela mikroskopioetako argipean erraiak hobe ateratzeko, baina zer egingo diogu, Euskal Herrian autopsia asko dira beharrezko oraindik.

Literatur kritika aurrera eta atzera doa gu guztiok bezala, gora eta behera gu guztiok

bezala, arrazoiarekin intuizioa biltzen, plazer eta atseginak eskaintzen, zuriaren eta beltzaren artean gero eta grisaxka gehiago aurkitzen. Bi kritika mota horiek, bi egotekotan, behar ditut. Baita hondartzan ere.

Literaturatik kanpoko iritzietan oinarritutako jarrerak ahulduko dira pixkanaka; eta halaber, dena ontzat ematen duen laudorio etengabea edota liburu bat bost lerrotan gutxiesten duten zazpi lerroko artikulutxoak. Kritika behar dugula ez du inork ukatuko, ezta kritika egiteko beste koallitate askoren artean ausardia eta irizpide egokiak beharrezkoak direla ere. Eztabaida eta polemika asko sortzeak ez digu, ene iduriko, kritika hobea ekarriko, bapateko iritzi txundigarrien distirek eta zaratek estaltzen dituzte askotan ezagueraren, intuizioaren eta zentzuen akatsak. Ez baitu euri gehiagorik ekartzen trumoi asko duen ekaitzak.

Jon Kortazarrek unibertsitatean lan egiten du, baina ez gaitzezen tentazio errazetan eror, *Luma eta lurra* liburuan autopsiak ikusi nahi dituen erraturik dabil, argi agertzen baita Jon Kortazar poesia-irakurleak irakurtzea plazer-iturri duela eta, beraz, autopsiarik onenak ere ez lukeela haren egarria asetuko.

Liburuan zehar egin dudan bidaia txikian luma eta lur harrigarriak aurkitu ditut: sarrera orokorra eta atal bakoitzekoak 80ko hamarkadan euskal poesiak burututako ibilbidea argitzen saiatzen dira; poeta bakoitzari eskeinitako azterketak zehatzak dira, ñabardurei ere tarte utziz. Ezagutzen ditudan poeta batzuen orrialdeak irakurri ditut plazer handiz. Ezagutzen ez ditudan beste batzuenak irakurtzeak bertan aipatu liburuak berehala bilatu eta irakurtzeko grina piztu dit. Badut buruan lauzpabost izen. Gainera, Jon Kortazarrek irakurleentzat, poema-liburuak irakurtzea maite dutenentzat idatzi du liburua; horregatik kontu handi eta ordainezina izan du bibliografiarekin. Hau da, liburu horien erreferentzia zehatzak ematen ditugula gure eta liburudendetan aritzen direnen buru-hausterako, berritasun-egarriz ahan-tziaren lurraldera erbesteratzen baititugu arin eta presaz orain dela zazpi edo hamar urteko liburu miresgarriak. Garai hartan galdu genuena, apur bat bederen, berreskuratu egingo dugu.

Jon Kortazarrek liburuan bertan azterketa berriak iragarri egiten ditu beste hamarkade-tako lanen berri emateko, eta suposatu nahi dut zuhaitzen azterketekin batera basoaren geo-grafia marrazten saiatuko dela. Liburu horien zain nago jadanik.

Batzurentzat bitxia izan daiteke poeta izena bainoago iraina, Juanjo Olasagarrek esan bezala, jasan behar duen batek literatur kritikari baten lana aurkeztea. Ni neu harriturik nago. Gaur eguneko ortodoxia estuen aurka doala dirudi, ez dela ez politikoki ez literarioki zuzena. Auskalo. Zalantza betetik nago, baina liburu honen irakurketak poema-liburu batzuk irakurtzera bultzatu nau. Eta hori oso ona da. Zuen baitan eragina bera pizten badu, ezin gehiagorik eskatu. Mila esker.

Rikardo Arregi Díaz de Heredia



Wolf, Michaela: *Hugo Schuchardt Nachlaß. Schlüssel zum Nachlaß des Linguisten und Romanisten Hugo Schuchardt (1842-1927)*. Leykam: Graz 1993, pp. XIX + 635, ISBN 3-7011 - 0011-X

En 1876 H.S. aceptó la cátedra de filología románica en la Universidad de Gratz, ciudad en la que permaneció tras su jubilación (1900) hasta su muerte en 1927. Dejó su villa a la fundación Malvina, fundada por él mismo, su biblioteca privada, a la Universidad de Gratz (donde se integra en un catálogo separado) y, sobre todo, un gran legado científico. Michaela Wolf ha llevado a cabo un importante trabajo de ordenamiento y catalogación en el ámbito de un proyecto del Fondo para el Avance de la Investigación Científica en Austria (FFWF). El presente volumen es el resultado de este trabajo. Quiero anticipar que es un ejemplo magistral de cómo trabajar sobre legados. La autora ha clasificado el legado entero, lo ha archivado en la sección de legados de la biblioteca universitaria de Gratz y, así, lo ha hecho accesible a su uso científico posterior. La envergadura de este trabajo se puede intuir sin más a partir de las cifras: hay allí 13.000 cartas dirigidas a H.S., además del resto de materiales.

Las páginas VII-XIX incluyen una historia y una presentación general del legado, junto con algunos datos biográficos. Y es en este punto donde quiero señalar la única carencia que aprecio: el estudio profundo de las cartas y los manuscritos de Schuchardt, pone a la autora en una posición privilegiada para ser la mejor conocedora de la vida y obra de Schuchardt, por lo que me parece un pecado que la introducción no incluya una biografía más extensa - aunque puede que éste no sea el marco idóneo para ello. Nos queda la esperanza de que la autora publiquen algún día sus conocimientos en este terreno.

La parte más abultada del volumen la ocupa la citada correspondencia (pp. 1-564). Las cartas no están clasificadas de forma aislada, sino que están interrelacionadas y se puede acceder a ellas desde diferentes vías. Al índice de los autores de las cartas (con indicaciones precisas y breves de sus fechas de nacimiento y muerte, su relación con Schuchardt, su ocupación y los campos científicos en los que trabajan, y una lista de sus cartas: 1-94), le sigue el índice de las cartas propiamente dicho (95-442), que se organiza tanto por autores como cronológicamente, se indica con precisión el lugar, la fecha y por lo menos una palabra clave sobre el contenido de la carta. Aparte de estos índices principales, este volumen incluye importantes herramientas de consulta, tales como índices separados de palabra clave (443-476), de las lenguas de las que tratan las cartas (541-546), de los lugares de origen de las cartas (511-540), de las ocupaciones profesionales de los autores (487-510) y un índice cronológico general (547-564).

El índice de cartas que se refieren a publicaciones (477-486) merece una mención aparte. Está ordenado según la lista de publicaciones de H.S. más completa, es decir, según el índice organizado por Leo Spitzer en el *Schuchardt-Brevier*. La autora clasifica todas las cartas relativas a publicaciones siguiendo las entradas del *Brevier*. Organizar este índice presupone la lectura detallada de todas las cartas y, ahora permite al usuario rastrear el origen y

el contexto de discusión científica que rodeaba a las publicaciones en vida de H.S. Sin embargo, para hacer un buen uso de este índice es necesario consultar paralelamente el *Brevier*.

El capítulo "Werkmanuskripte" (estudios manuscritos) (565-612) presenta las reseñas sobre las colecciones de material, manuscritos, estudios, etcétera, agrupadas en 37 campos (lenguas, familias de lenguas, ciencias humanas y otros). La calidad y utilidad de los documentos aquí recogidos varía bastante, desde meros ejercicios hasta textos completamente revisados y preparados para la imprenta. Quiero citar como ejemplo la organización del capítulo 23 "Baskisch" (vasco) (599-603). El punto 23.1. recoge un listado de las obras impresas de su legado, a excepción de las obras que se encuentran en su biblioteca privada; el 23.2. lista "Borradores y notas", en él encontramos las subsecciones 23.2.1. "Vasco en general" (32 entradas, alguna de las cuales corresponde a 128 páginas en el manuscrito original); 23.2.2. "Sara"; 23.2.3. "Topónimos", 23.2.4. "Borradores de obras impresas" (de nuevo ordenados según el *Brevier*); finalmente tenemos el 23.2.5., "Inscripciones vascas". El punto 23.3. reúne los trabajos sobre "Interlingüística vasca" con referencias a las publicaciones y el 23.4., las pruebas para impresión de sus obras.

Los capítulos C y D del volumen de M.W. completan gratamente el cuadro con "Documentos de su vida" y "Colecciones". El primero ofrece una visión general sobre le curriculum de H.S. (diplomas, certificados, honores, menciones en la prensa y otros) y permite el acceso a documentos privados, apuntes y poesías (por ejemplo, dos archivos llamados "Poesías" y "Sonetos" que comprenden 188 páginas). El segundo contiene áreas bastante heterogéneas, las fotos del legado, los llamados "Impresos de otros autores" (aquí se encuentran sobre todo las reseñas sobre las publicaciones de H.S. y escritas que se refieren a H.S.). En el "Legado ampliado" se pueden encontrar además opiniones de prensa en ocasión de los cumpleaños de H.S., esquelas y necrológicas.


En definitiva, este volumen es un reflejo del legado mismo. La razonable claridad con la que la autora ha filtrado y ordenado el legado no encuentra aquí más que su lógica correspondencia. No tenemos entre manos un simple inventario. M.W. ha logrado uno de esos raros ejemplos en los cuales el ojear las listas de códigos del Inventario, de nombres, de fechas y de palabras clave produce placer y deseo de profundizar en lo que se esconde y se intuye a través de las abreviaciones utilizadas la obra de H.S. Además, he tenido la ocasión de consultar el legado con la ayuda de este volumen: el sistema del inventario y la codificación impecable permiten el acceso rápido tanto a los contenidos como a los materiales físicos.

Este volumen de M.W. pone un digno punto final a las leyendas que se entrelazarn alrededor de la figura de H.S. tras su muerte y es, al mismo tiempo, una oportunidad, un comienzo y un desafío para una dedicación más intensa y detallada hacia este científico excepcional. Es indudablemente una de las cosas por las que debemos estar agradecidos a Michaela Wolf.

Bernhard Hurch

Institut für Sprachwissenschaft. Universität Graz. Mozartgasse 8
A-8010 Graz

* Le estoy muy agradecido a Inmaculada Urteaga por su ayuda en la traducción de esta reseña.



Jon Mirande orhoituz (1925-1972). P. Urkizuren edizioa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997, 135 orr.

Ez da hau Patri Urkizuk Mirandez prestatzen duen lehen liburua laugarrena baizik. Lehena, *Gauaz parke batean. Ipuin izugarriak*. Jon Mirande (Elkar 1984) izan zen eta nahiko harrera ona izan zuen bi argitaldi izan baitzituen. Bigarrena, *Etsipenez. Jon Chahoren memoriarioizunak* (Elkar 1984) urte berean beraz, baina bestea ez bezala biografia nobelatu honek ez zuen arrakasta ez oihartzun ia batere izan. Hirugarrena, *Jon Miranderen Gutunak (1948-1972)* (Susa, 1995) izan zen. Honek aldiz, aski harrera ona izan du, oraindik akaso behar adina zabalkunde ez duen izan arren. Dena den, Miranderen obra oparrena den gutundegi honetan bere estilo berezia dastatzeko bai eta bere idazlanak interpretatzeko giltzez jabetzeko aukera dugu.

Laugarrena, hemen komentatzen duguna da. Koldo Mitxelena kulturuneko bai eta Donostiako Liburutegi Nagusiko zuzendariak aukera eman diote edizio paratzaileari bi eguneko mahai-inguruaren ondoren antologia hau presta eta plazara dezan.

Aurelia Arkotxa-Scarciak sarrera eder eta sakon bat dakar: *Mirande eta Thanatos: heriotz heroikoa*. Hemen AAS-k Mirande eta nazional-sozialismoaren inguruan ohar batzu benetan interesgarriak Miranderen obra kokatzeko ematen dizkigu.

Arantxa Arzamendiri zor zaio liburu bukaeran ageri den *Jon Miranderen idazlanak* bibliografia zehatza. Soilik adierazi beharko litzateke 1976an Gerok argitaratu edizioa Txomin Peillenek prestatu zuela (2, 121. or.).

Joxan Muñozek diseinu aldetikan benetan edizio pollita burutzea lortu du, uste dudalarik horrek ere lagunduko duela Miranderen irakurketan eta ezagutzan.

Antologiak hogeita testu ditu bi partetan banatuak. Lehenean Sortze-lanak doaz (10 orotara) eta bertan jenero ezberdinetako idazkiak aurki dezakezue: bost kazeta-artikulu (bat argitaragabea), bi ipuin (bat argitaragabea), poema bat, gutun bat eta liburu erreseina bat, hain zuzen, 1960ko Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca* -ri egina eta frantsesez. Beste denak noski euskeraz daude. Bigarren sailean Itzulpen-lanak datoz (10 orotara). Hemen hiru lan gaur arte argitaragabeak zirenak: Friedrich Nietzscheren *Also sprach Zarathustra*-tik hartutako hitz-lauzko zatiño bat: Emakume zâr ta gazteetaz deitua. Bigarrena Federico García Lorcaen Muerte de Antoñito el Camborio 'Antoñito Camborioaren eriotza', *Romancero Gitano*-tik hartutako poema ezaguna. Eta Bing Crosbyren Lullaby land hirugarrena.

Alemanetik, espainoletik, inglesetik, breizeratik eta hebraieratik itzuli zituen poemak ditugu sail honetan. Friedrich Nietzsche, Federico García Lorca, Edgar Allan Poe, Bing Crosby,

John Keats, Goulven Pennaod, Hugo von Hofmannsthal, Frantz Kafka, Friedrich von Schiller eta Saul Txernikovski dizkigu gureganatzen Mirandek bere ahots eta musika propioarekin.

Liburu hau euskaldun lokartuak ernatzea eta euskaldunen literatura goratzea eta eguneratzea sortze-lanen eta itzulpenen bitartez hainbat ahalegin egin zituenari eskainia dago, noski, eta ez da urrats bat baizik Jon Miranderen Lan osoak egiteko eta ezagutzeko bidean.